

## Uztardura Teoria hatsarre unibertsalen eredu gisa

### 0. Oinarrizko adibideak

- (1)
- a. \* bere burua erori da.
  - b. Riverak bere burua kritikatu du.
  - c. Riveraren entrenatzaile pertsonalak bere burua kritikatu du.
  - d. \*bere buruak Riveraren entrenatzaile pertsonala kritikatu du (cf. bere burua Riveraren entrenatzaile pertsonalak kritikatu du)
  - e. Sanchezek Riveraren entrenatzaileak bere burua kondenatu duela uste du.
- (2)
- a. bera erori da
  - b. Riverak bera goraipatu du.
  - c. Riveraren entrenatzaile pertsonalak bera goraipatu du.
  - d. Riverak bera presidente ona izango litzatekeela uste du.
  - e. Riveraren entrenatzaile pertsonalak bera presidente ona izan litekeela uste du.
- (3)
- a. berak Calvo azkarra dela pentsatzen du
  - b. Calvok Calvo kritikatu du
  - c. Calvoren gizonak Calvo kritikatu du
  - [d. bere, beraren gizonak Calvo kritikatu du]

● adibide berak azpiindizeak emanda:

- (1')
- a. \* bere burua<sub>i</sub> eroria da
  - b. Riverak<sub>i</sub> bere burua<sub>i</sub>, \*<sub>k</sub> kritikatu du
  - c. Riveraren<sub>i</sub> entrenatzaile pertsonalak<sub>j</sub> bere burua\*<sub>i, j</sub> kritikatu du
  - d. \*bere buruak<sub>i</sub> Riveraren entrenatzaile pertsonala<sub>i</sub> goraipatu du
  - e. Sanchezek<sub>i</sub> Riveraren entrenatzaileak<sub>j</sub> bere burua\*<sub>i, j</sub> kondenatu duela uste du
- (2')
- a. bera<sub>i</sub> erori da
  - b. Riverak<sub>i</sub> bera\*<sub>i/j</sub> kritikatu du
  - c. Riveraren<sub>i</sub> entrenatzaile pertsonalak<sub>j</sub> bera<sub>i/ \*j/k</sub> kritikatu du

- d. Riverak<sub>i</sub> bera<sub>i/k</sub> presidente ona izango litzatekeela uste du  
 e. Riveraren<sub>i</sub> entrenatzaile pertsonalak<sub>j</sub> bera<sub>i/j/k</sub> presidente ona izan litekeela uste du.

- (3') a. Berak<sub>i</sub> Calvo ministra<sub>j/\*i</sub> azkarra dela pentsatzen du  
 b. Calvok<sub>i</sub> Calvo<sub>j/?i</sub> goraiatu du  
 c. Calvoren gizonak<sub>j</sub> Calvo<sub>i/k/\*j</sub> goraiatu du  
 [d. bere, beraren<sub>i</sub> gizonak<sub>j</sub> Calvo<sub>i/k/\*j</sub> goraiatu du]

(4) ***o(sagai)-komandoa***

A adabegiak B adabegia o-komandatzen du, baldin eta (soilik baldin)

- a. A-ren eta B-ren artean batak bestea menderatzen ez badute; eta  
 b. A adabegia menderatzen duen lehen adabegi adardunak B ere menderatzen badu.

- hiru determinatzaile-sintagma mota-edo daude lehen begiratuan :


- (5) a. DS batzuek nolabaiteko *aurrekaria* behar dute erreferentzia hartzeko, baina aurrekariak egitura-harreman berezia eduki behar du DS-arekin (*aurrekariak* bigarrena o-komandatu behar du) eta hurbil (perpaus berean) egon behar du  
 b. bigarren DS mota batek aurrekaria toleratzen du (beste baten erreferentzia onartzen du), baldin eta hurbilegi ez badago (perpaus berean ez badago), edo (perpaus berean egonda) baldin eta aurrekariak bera o-komandatzen ez badu.  
 c. hirugarren DS mota batek bere erreferentzia du beti; ez du aurrekaria toleratzen baldin eta aurrekariak bera o-komandatzen badu.

[(5a)-ko joera jarraitzen dutenei *anafora* esaten zaie;


(5b)-ko joera jarraitzen dutenei *izenordain* esaten zaie;

(5c)-ko joera jarraitzen dutenei *erreferentziadun espresio* esaten zaie.]


(1b)




(1c)




(1d)




(1e)




(2b)




(2c)



(2d)



(2e)



(3a)

